



Ikasle batzuk ikasgelan. G.R./FOKU

EAEko Eskola Kontseiluak curriculumua egokitzea nahi du

GASTEIZ • EAEko Eskola Kontseiluak hainbat proposamen egin dizkie administrazioari eta hezkuntza eragileei, ikasturtea amaitzeko era udari eta datorren ikasturteari begira. Gomendatu du hurrengo ikasturtea udako oporren aurretik prestatzea, planifikatzea eta antolatzea, egon daitezkeen agertoki desberdinei erantzuteko, «inprobisazioak» saihesteko eta ikasleei «arreta egokia» emateko.

Ikasturtea amaitu aurretik, ikasle bakoitzak bere egoera pertsonalari eta akademikoari buruzko «diagnostiko individuala, errealia eta zehatza» izatea nahi du, eta, horren arabera, beharrezkoa bada, hurrengo ikasturtean esku hartzeko eta indartzeko neurri pedagogikoak eta antolakuntzakoak planteatzea, bereziki egoera «gogorrena» pairatu dutenei. Hurrengo ikasturterako, besteak beste, curriculumua «oinarrizko eta ezinbesteko» gaitasunetara egokitzea eta murriztea ere proposatu du.